


Hezkuntza digitala. Hartu kontrola



Arabako ikastetxeetan

Ikasle, guraso eta irakasleentzako hitzaldiak eta tailerrak

Internetek, sare sozialek, *smartphone* delakoek eta, oro har, teknologia berriek, gizartean onartuak izateko eta ezartzeko epealdi oso azkarra izan dute. Gaur egun, jende guztiak erabiltzen du teknologia hori, baina ez dago horren erabilerari lotutako arriskuen eta ondorioen gaineko ezagutzarik, ezta era kontzientean erabiltzeko prestakuntzarik ere.

Gure lurraldearen hezkuntza-garapenean laguntzeko dugun asmoari jarriki, Arabako DBH hezkuntza-zentroetako **ikasleei, gurasoei eta irakasleei** begira egindako programa berri bat sustatzen ari gara. Aukera ezin hobea da, dohainik, prestakuntza digital eguneratua har dezaten, eraginkorra eta ziurra. Prestakuntza osoa egin daiteke **euskaraz, gazteleraz edo ingelesez**, hezkuntza-zentro bakoitzak aukeratzen duenaren arabera.

Informazioa

Gure lurraldean, telefono mugikorra eta sare sozialak erabiltzen hasteko batez besteko adina 12 urtekoa da, nahiz eta plataformek beraiek 14 edo 16 urteko gutxienera adina ezartzen duten. Arriskuak asko dira eta era askotakoak: *malware* edo birusa, ingeniarietza soziala, ezezagunak, nagusiek adin txikikoengana egindako izaera sexuareko hurbilketak, *sexting*, online apustuak, adikzioa, gehiegizko esposizioa, jazarpen digitala, e.a. Sare sozialak eta teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen badira ere, pertsona gutxiak dakite arrisku horiek aurreikusten eta horien aurrean babesten. Online jokoak ere sare sozialak

dira.

Hezkuntza arloan 10 urte luzeko eskarmentua duen Macsonrisas-en lankidetzaz, Vital Fundazioak aipatutako programa berri hori sortu du eta, hitzaldi eta tailerren bitartez, ikasleek, gurasoek eta irakasleek teknologiaren erabilera kontzienteagoa egin dezatela da helburua eta segurtasunaren oinarritzko arauak jarrai ditzatela.

- **Ikasleak**, irakastordu batean, Interneten dauden ohiko arriskuak identifikatzeko gauza izango dira, baita modu egoki batean babesteko eta arrisku horiek saihesteko erabilera irizpideak jarraitzeko ere.
- **Gurasoek**, ordu 2ko saio batean, adin txikikoak arlo digitalean hezteko gomendatutako arauak ezagutuko dituzte: hezkuntza-baliabideak, gomendatutako adinak, gurasoen kontrola, arauak eta mugak edo sare sozialen arriskuak.
- **Irakasleek**, ordu 2ko saio batean, hezkuntza-zentroko informazio digitala babesten ikasiko dute, zeintzuk diren sare sozialen arriskuak nagusientzat eta adin txikikoentzat, nola aurreikusi, eta teknologiaren erabilerak osasunerako dituen arriskuak eta ingurumenarekin duen zerikusia.

Informazio gehiago [hemen](#).

Eskabideak

Programa horretan parte hartu nahi duten ikastetxeek eta IGE-ek harremanetan jarri beharko dute Julen Linzasororekin, proiektuaren tekniko-arduraduna, 622 871 713 telefonoan edo info@macsonrisas.es posta-elektronikoan.

Dokumentazioa

- Liburuxka2.78 MB